



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

II. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Hilekoaren antropologiara
hurbilketa: gorputz eta odolaren
arau eta politikak**

Miren Guilló Arakistain

199-205 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.24>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



Hilekoaren antropologiara hurbilketa: gorputzaren eta odolaren arau eta politikak

Miren Guilló Arakistain

AFIT (UPV/EHUko Antropologia Feminista Ikerketa Taldea), Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila (UPV/EHU)

miren.guillo@ehu.eus

Laburpena

Artikulu honetan idazten ari naizen doktore-tesian garatu ditudan zenbait ideia azalduko ditut. Ikerketa emakume gazteen gorputz-politiken analisisian zentratzen da, hilekoaren bizipenak, kudeaketa eta politikak abiaburu. Orrialdeotan hilekoaren ulerkeran sakonduko dut: batetik, mendebaldeko biomedikuntzak ekoizten duen esanguran, eta, bestetik, hilekoaren politika alternatiboetan parte hartzen duten subjektuek egiten dituzten ulerkeretan. Antropologia feministak, osasunaren antropologiak eta gorputzaren teoria sozialak osatzen dute jardun analitiko honen testuinguru zientifikoa.

Hitz gakoak: Generoa, gorputza, gorputz-politikak, hilekoa, etnografia, antropologia feminista.

Abstract

In this article I would like to explain some ideas on which I am working in my Phd research. This research analyzes the management that young women are doing about body politics, specially focusing on the vital experiences, and the management and politics of menstruation. Here I would like to delve into the understanding of menstruation: both the medical way and the way that women who are participating at alternative menstruation politics are producing. The scientific background for this purpose is based on feminist anthropology, medical anthropology and the social theory of the body.

Keywords: Gender, body, body-politics, menstruation, ethnography and feminist anthropology.

1. Sarrera eta motibazioa

Hilekoaren politikak, gorputza eta genero-harremanak ikertzen ditut garatzen ari naizen doktore-tesian¹. Horretarako, batetik, hilekoaren esanahiak ikertu eta analizatu ditut, eta bestetik, hainbat urtetan euskal testuinguruan garatu diren zenbait hilekoaren politika alternatibo² behatu ditut metodo antropologikoaren bitartez. Ikerketa horren abiapuntua, bada, 2009an egin nuen «Hilekoa: diskurtsoak, praktikak eta tentsioak. Esanahi berrien bila hausnartzen» Master Amaierako Lana izan zen. Ordutik dezente aldatu da ikergaia bera, eta horrek ikerketa birformulatzeraz eraman nau, antropologo gazte gisa esperientzia emankor eta aberats batean kokatuz. Doktore-tesian, hortaz, hilekoaren hariari eutsi eta gorputz-politikei erreparatu diet, gaiaren garaikidetasunari eta biltzen dituen ardatz eta ertzei helduz.

Artikulu honetan, zehazki, hilekoaz ekoizten diren esanahietan sakonduko dut, bai biomedikuntzak³ ekoizten dituen esanahiak eta baita politika alternatiboetan sortzen

¹ 2010ean hilekoaren politikak, gorputza eta genero-harremanen gaineko doktore-tesia hasi nuen, Mari Luz Estebanen zuzendaritzapean. Horretarako UPV/EHUko ikerkuntza-beka izan nuen 2010-2014 artean. Egun ikerketaren idazketa prozesuan nago.

² Hilekoaren ikuspegi hegemonikoa auzitan jartzea xede duten gorputz-politikak lirateke.

³ Biomedikuntza, mendebaldeko medikuntza, medikuntza zientifikoa edota medikuntza unibertsal gisa ezagutzen duguna litzateke, egungo gizartearen gailentzen den sistema mediko nagusia (Perdiguero, 2006).

direnak ere, horretarako, hurrengo ataletan iruzkinduko ditudan gorputz soziala eta gorputz politikoen planteamenduetatik⁴ abiatuz (Scheper-Hughes eta Lock, 1987).

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Hilekoa dimentsio material, sozial, sinboliko eta kultur esanahiek eratzen eta sortzen duten gertaera biologikoa da. Esperientzia oro askotarikoa bada ere, jendarte desberdinek generoaz, gorputzaz, biologiaz dituzten usteen arabera moldekatuko da esperientzia hau. Horrenbestez, sozialki eraikitzen dira hilekoaren esanahiak, eta berau gertatzeko, azaltzeko, eta bizitzeko moduak ere moldekatuko dira.

Ez dira ugariak izan hilekoaren gainean egin diren ikerketa sakonak, are gutxiago genero-ikuspegia dutenak eta emakumeen bizipenak aintzat hartu dituztenak; izan ere, joera androzentrikoaren ondorioz ez baita lehentasunezko gaia kontsideratu, ez osasunaren esparruan, ezta gizarte zientzietan ere. Baina badira gai hori zuzenean jorratu dutenak edota beste ikergai orokorragoen baitan landu dutenak, esaterako, antropologian (ikus, besteak beste, Martin, 1987; Buckley eta Gottlieb, 1988; Esteban, 2001; Blázquez, 2005; Guilló, 2014a, 2014b) edota osasun eta gizarte zientzietan ere (Parera eta Suris, 2004; Ortiz Gómez, 2006; Valls-Llobet, 2006; Parera, Pennella eta Carrera, 2007; Alonso-Arbiol, Balluerka eta Aperribai, 2009; Aperribai, 2012; eta beste).

Ikerketa honen kasuan, aipatu moduan, hilekoaren harrietatik partitu eta hilekoaren politiken analisia izan da erdigune, eta hala, gorputz-administrazioarekin lotura duten beste zenbait gai ikertu dira: sexualitatea, osasuna, sexu eta ugaltze osasuna, elikadura, parte hartze soziala edota bestelako bizi-esperientziak, kasu. Honela, generoa eta osasuna lotzen diren praktika, diskurtso zein ideologiak aztertu dira.

Nola ulertu, bada, hilekoaren politikak? hilekoaren politikak, oro har, osasun erreproduktiboaren esanahi eta administrazio prozesuak dira, instituzio desberdinek aurrera daramatzatenak (medikoak, erlijiosoak, ekonomikoak, komunikabideak...), baina baita pertsona eta taldeek daramatzatenak ere. Hortaz, norbanakoen agentzia eta agentzia kolektiboa (feminista kasu) gorputz-politiken erdigunean dagoen elementua da. Ideologia eta praktika horiek testuinguru ekonomiko, kultural eta politiko zehatzen baita gertatzen dira, zeintzuek eragin zuzena duten politika korporaletan; alabaina, beste norabidean ere, politika horiek dauden testuinguruak eragiten dituzte. Hala, narrazio eta praktika horietan gertatzen diren gorputzasun eta genero harremanen negoziazio prozesuak ikertzen ari naiz, hilekoaren kultura alternatibo horietan sortzen diren esentzialismo, biologizismo eta etnozentrismo posibleei arreta jarriaz, baina baita emakumeen erresistentzia eta agentzian ere. Funtsean, politika jakin horien bitartez, kulturalki alternatiboak diren zenbait abagunetan sortzen diren genero-harremanak, subjektibazio prozesuak, ideologiak eta eztabaidak ezagutzea izan da ikerketa honen jomuga.

Ikerketa aurrera eramateko metodologia elkar uztartu diren hiru estrategia antropologikotan oinarritu da: batetik, gorputz ibilbide (Esteban, 2004) gisa garatu ditudan elkarrizketa sakonak egin ditut, zeintzutan bizi-ibilbidearen analisisan arreta berezia paratu diegan gorputz-praktikei, sentsazioei zein emozioei, gorputzaren teoria sozialari jarraiki (Csordas, 1994; Esteban, 2004). Bestetik, hilekoarekin lotutako egitasmo kolektiboen behaketa egin dut, berauetan modu desberdinetan parte hartuz; eta azkenik, ikertzaile gisa, hilekoaren bizipenetan eta politikan jorratutako dimentsio autoenografiko-erreflexiboa ere tresna metodologiko funtsezkoa izan da.

⁴ Nancy Scheper-Hughes eta Margaret Lockek (1987) hiru gorputz analisi maila planteatzen dituzte, norbanakoaren gorputza, gorputz soziala, eta gorputz politikoa, ikuspegi teoriko eta metodologiko desberdinak inplikatur. Hiru gorputz hauek, elkar artikulatzen diren hiru analisi dimentsio lirateke.

Horrez gain, gorputz-politikak gorputzaren eta osasunaren erregulazio eta kontrolarekin lotutako ideologiak eta praktika gisa ulertzen ditut, kontrolerako baina baita konfrontazio eta erresistentzia kolektibo eta banakakorako aukera direnak ere. Horrenbestez, boterea eztabaidatzeko eta negoziatzeko eremu dira, aldaketa soziala posible egiten dutenak, alegia (Esteban, 2004).

3. Ikerketaren muina

Antropologia feminista, osasunaren antropologiak eta gorputzaren teoria sozialak hilekoaren mendebaldeko ulerkera hegemonikoaren analisi lekutu bat egitera eraman naute. Zein da, bada, hilekoaren ikuspegi hegemoniko hori? Hilekoaren ikuspegi tradizionala, zikintasunarekin, *bestetasunarekin* eta tabuarekin lotzen da (de Miguel, 1971; Houppert, 2000; de La Peña, 2002; Esteban, 2001; Ortiz, 2006; Valls-Llobet, 2006). Egun, itxuraz modu positiboago batean planteatzen bada ere, diskurtso medikoan, maila zientifiko zein dibulgaziozkoan, oraindik ere alderdi patologikoenak nabarmentzen dira. Bestalde, gure gizartean hilekoaren ikuspegi gailentzen diren bi ideia nagusi hauek dira: batetik, hilekoa kutsadurarekin lotzen duena, bestetik, kontrolaezina den zerbait, gobernatu eta ezkutatu behar dena, publizitateak erakusten digun bezala. Esanahi-ekoizpen amaraun hori ulertzeko, banan-banan helduko diegu zenbait ekoizpen-esparruri.

3.1. Hilekoaren patologizazioa eta gorputz-erregulazioa mendebaldeko medikuntzaren ikusmoldean.

Biomedikuntza, mendebaldean garatu den medikuntza nagusi gisa, botere handiko instituzioa izan da eta da; jendarteak ordenatzeko eta ordena horiek mantentzeko arauemailea, bereziki 19. mendetik aurrera. Biomedikuntzak eta bereziki ginekologiak, genero-eskema ideologikoen bitartez, objetibotasun, neutraltasun eta zientifikotasunaren menean erregulatu ditu gorputzak, emakume izendaturiko gorputzak batik bat. Esan bezala, historiaren une desberdinetan kutsu patologikoaz definitu da hilekoa (de Miguel, 1971; Ortiz, 2006). Jesús de Miguelen arabera (1971), 1939-1979 urte bitartean Espainiar estatuan garatu ziren diskurtso ginekologikoak, odolari, sexuari, ezintasunei eta egoera ez-normalei lotuak gertatu ziren. Gaixotasun gisa definitu zen hilekoa, ezintasun eta egoera ez-normal moduan, debeku eta kontrol iturri. Hala, emakumea aldizkako gaixo kontsideratua izan zen, eta ondorioz, lan serioetarako gai ez den subjektu gisa definitu. Halaber, garai hartako zenbait ginekologoren arabera hilekoak gaizkile bulkadak sorrarazten zituen, baita krimenerako joera ere. Oro har, hilekoa sexu-bizitzarekin lotu ohi zen, sexualitatea bera ere menarkia eta menopausia izendatu diren prozesuen bitarteko garaian gertatzen dela azalduz (De Miguel, 1971); ondorioz, sexualitatea ugalketa eta kittoarekin lotu eta ikuspegi mugatzailea zein heterozentratua garatuz.

Egun, horren kutsu patologizatzaileaz azaltzen ez bada ere, erregulazioa eta patologizazioa bestelako moduetan ekoizten dira. Esaterako, azalpen biomedikoan oraindik gailentzen den ikuspegia hutsegite prozesuarena da: ernaldutako ez den obuluarena, alegia (Martin, 1987). Horrenbestez, eta inplizituki, emakume izendatutako gorputzen berezko xedea ernaltzea dela aditzera emanez, hilerokoaren egitatea beti ere ugalketa funtzioari lotua agertuz. Halaber, definizio mediko horren baitan hilekoa gertatzeko prozeduraren ikuspegi produktibo eta hierarkikoa gertatzen da; gorputz-prozesu hori hipotalamoak modu hierarkikoan agintzen duela ulertzen baita, faktore eta kausa askotarikoen elkarlanean aditu ordez (Martin, 1987). Zergatik bada, metafora medikoek erakusten duten moduan, kontsideratzen dira maiz *emakume* gorputzen prozesuak modu negatiboan eta ugalketari horren hertsiki lotuak?

(...) halabeharrezko naturalizazioa, kontrol-aukerarik eza, borondateaz gairik prozesuen bat-batekotasuna, tabua, eta guzti honi lotua, horiekiko negatibotasuna sentimendu orokortuak direla emakume guztien kolektiboaren baitan (Esteban, 2001: 110)⁵.

Erregulazioari dagokionez, aldiz, hormonon eta botiken kudeaketarekin bideratzen da, gorputz-prozesuaren medikalizazioa sustatuz. Elkarriketatu ditudan emakumeen esanetan, euren ibilbidean ginekologoen maiz bideratu dituzte hormonak eta antisorgailuak hartzera, edota mina baretzeko botikak hartzera, askotan, ikuspegi holistikoagoak eta sakonagoak saihestuz. Dibulgazio mediko-zientifikoak ere hilekoaren aurretiko *nahastea* jorratzen du bereziki eta

⁵ Jatorrizko hitzak: La inevitabilidad, la “naturalización”, la no posibilidad de control, la espontaneidad de los procesos al margen de la voluntad, la tabuización, y unido a todo esto, la negatividad sobre los mismos son sentimientos generalizados dentro del colectivo de todas las mujeres (Esteban, 2001:110).

desorekak ditu hizpide eta kezka nagusi. Aldatu dira ikuspegi medikoak, eta aldatu dira emakumeen bizipenak ere; eta, oro har, esperientzia aniztasuna ere nabarmen gailendu da analisisan. Dena den, erregulazio eta patologizazioaren adibide zoli ditugu, esaterako, egun oraindik publizitateak garatzen duen iruditegi eta edukia, edota Espainiar estatuan berriki merkaturatu den eta hilekoa hiru hilabete behin ekoizten duen antisorgailu eredu.

3.2. Gorputz kutsadurak eremu sinbolikoan. Odol-isurketaren kudeaketa adibide.

Orokorrean, emakumeak eta emakume gisa definitu diren gorputzak kutsadura kontzeptuarekin lotu izan dira modu desberdinetan historian zehar (Douglas, 2000). Hilekoa kultura askotan zikin eta kutsakor bezala ikusi izan da (Ortner, 1979) eta Mendebaldeko kultura mediko-zientifikoan, gaixotasun gisa definitu da, kontrol eta debekuen iturri bihurtzeraino. Esan moduan, egun, ikuspegi hori apur bat leundu arren, kontrol hori erregulazio eta medikalizazioaren bitartez gertatzen da. Gorputzaren teknologiak askotarikoak dira, eta besteak beste, jario propioak teknologia horien bitartez *desgorputzen* dira, gorputz garbiak, osasuntsuak eta ederrak arau. Gorputzasunen eta gorputz-ideologia eta -praktiken analisiak, kultur sistema eta jendartea ezagutzera garamatza, aipatu dugun gorputz sozialaren ikuspegitik.

Kutsaduraren ideia hori argia da konpresa eta tanpoi komertzialen publizitatean. Publizitateak freskoa, garbia eta higienikoaren iruditegia islatzen du, oposizioz hilekoa zikina, kontrolaezina, usain txarrekoa edota ezkutatu beharrekoa bailitza. Hortaz, hilekodun gorputzak ere zikinak, usain txarrekoak eta arrisku egoeran daudela aditzera ematen da. Iragarritako produktuek, aldiz, segurtasuna, ongizatea eta garbitasuna iradokitzen dute, ukazioaren kultura bultzatuz: likido urdinaren metafora klasikoa (odolaren antitesia), kasu. Horrenbestez, odol-isurketaren aurrean zikloa ukatzeko beharra eta auto-erregulazioa bultzatzen dira. Ukapenak sortutako arazoak, sentsazioak edota deserosotasunak jazartzaileak dira *emakume* gorputzetan.

Ikusmolde horrek, halaber, odol-isurketen kudeaketa-eredu jakin bat sustatzen du, justuki mendebaldeko sistema ekonomiko kapitalistan eta genero-sisteman lekutzen eta ekoizten den kudeaketa-eredua. Zeintzuk dira, bada, kudeaketa-eredu horren ondorioak? Esaterako, osasunaren ikuspegitik kaltegarriak dira tanpoiak zein konpresak egiteko, zurrizko eta xurgagarriagoak izateko erabiltzen diren zenbait produktu. Halaber, ingurugiroarekiko ere produktu kutsagarriak dira. Horrez gain, kudeaketa-eredu honek, beti ere kontsumo logiken baitan, gorputz-beharrak areagotu eta espezifikatu ohi dituzte: odol askorako, gutxiagorako, hilekoaren amaiera egunetarako edota gauerako produktu jakinak (eta beharrak) sortuz. Prozesu fisiologiko-sozialak kudeatzeko praktika zehatzak bultzatzen dira, gorputz- eta genero-arauak merkatuaren erdigunean jarritz.

Odol-kutsaduraren izaera sinbolikoa eta odol-isurketen kudeaketa propio uztartzen diren beste adibide interesgarri bat Begoña Aretxagaren (1997) analisi antropologikoan aurkituko genuke. Aretxagak IRAko kide presoek espetxeetako autoritate eta Britainiar gobernuaren kontra abiatutako «protesta zikinaren» genero-irakurketa egiten du. 1978an presoek euren ziegetan geratzea erabaki zuten protesta moduan, komunera ere atera gabe, hala, euren eginkariak bertan eginez. 1980an Armagh presondegiko emakumeak gehitu ziren protestara; ziegetan metatutakoen artean hilekoaren odola gehituz. Odol hark erreakzio eta eztabaida askotarikoak piztu zituen, bai errepublikarren eta feministen artean, eta, oro har, komunikabide nahiz jendartean. Ezinbestean azaleratu zen hilekoaren odol-izaera: kutsadura, nazka eta kontrolaezina den gorputz-errefusa gisa. Hala, odolaren presentziak agerian jarri zituen genero desberdintasunak zein desberdinkeriak, emakume gorputzen naturalizazioa eta gorputz-arauak borroka testuinguru hartan. Era berean, Aretxagaren analisisan emakume haien agentzia eta erresistentzia gaitasuna nabarmentzen dira, euren gorputza borroka-jokaleku bilakatu zuten heinean.

3.3. Odolaren gorputz-politikak

Hilekoaren ikuspegi hegemonikoa gorputz sozialaren parte da, jendartea aztertzekeo gune emankorra, gorputz-erregimenen ispilu. Horrez gain, hilekoaren politika alternatiboak ere behatu ditudan heinean, hori *berresanahitzeko* prozesuak analizatu ditut, erresistentzia kolektibo eta banakako gisa. Batetik, hilekoaren kultura alternatibo horietan gertatzen diren esentzialismo,

biologizismo eta etnozentrismo posibleak erreparatu ditut, baina baita emakumeen erresistentzia eta agentzia ere. Ikerketa Euskal Herrian kokatu dudan arren, atzerrian egindako ikerketa egonaldiak probetxuzkoak izan zaizkit hilekoaren bestelako politika alternatiboak ezagutzeko⁶.

Hilekoaren politiken adibide gisa odol-isurketaren bestelako kudeaketa-ereduak aipatuko ditut. Azaldu dugun ikuspegi hegemoniko honen aldean, hori eztabaidatzeko hedatu dira kudeaketarako zenbait alternatiba: telazko konpresak, kopa, esponjak, jario askea, etab. Horien gaineko informazioa aski hedatu da azken hamar urteetan, eta bereziki, azken bost urteetan. Bestelako kudeaketa-eredu horrek, osasungarriagoa, ekologikoagoa eta kontzienteagoa den bidea bilatzen du. Duela zenbait urtea posible zen horiek erostea Internet bitartez, zenbait belar dendatan edota hainbat liburu denda alternatibotan. Egun, ordea, merkatuan aski presente daude eta besteak beste, farmazia edota sareko deskontuen eskaintzatan ere aurki daitezke; hedatu den eta merkatuak bereganatu duen kontsumo produktu gisa.

Kudeaketa ereduaren auziaz harago, badira hilekoaren kultura alternatiboen parte diren beste zenbait ekimen: hilekoaren gaineko lantegiak, topaketak, zineforumak, performanceak, arte-erakusketak, mintegiak, fanzineak eta beste. Horietan, maiz, kolektiboki eraikitzen eta ekoizten diren ezagutzak dira abiagune eta eremu ideologiko-politiko desberdinetan sortzen dira: osasunaren mugimendu sozial eta mugimendu feministan, eremu akademikoan, arte adierazpideetan, medikuntza alternatiboen eta espiritualitatearen eremuan, eta beste. Esparru horietan gauzatu dut, hain zuzen ere, prozesu etnografikoa.

4. Ondorioak

Aztertutako gorputz-ibilbideetan, hilekoaren kultura hegemonikoa eztabaidatzeak gorputz eta genero ideologia biomedikoak auzitan jartzea bere baitan dakar; hau da, hilekoaren planteamendu alternatibo jakinek osasunaren, gaixotasunaren, ongizatearen edota arretaren inguruko begirada zehatza garatzen dute. Elkarrizketatu oro oso kritiko agertu da gorputzaren ikuspegi biomedikoarekin, medikalizazioarekin, ikuspegi androzentrikoarekin edota arreta prozesuetan sortzen diren harremanekin (sendagile-erabiltzaile). Orokorrean, ikerketa honetan parte hartu duten emakume askok medikuntza alternatiboak eta herri-medikuntza ere erabiltzen dituzte. Horietako batzuk, medikuntza alternatiboekin ere kritikoak dira, bertan erreproduzitzen diren kontsumo-balioengatik, autogestioan ardatzen baitute euren ideologia eta praktika.

Ikusi dugu, hilekoaren ulerkerari dagokionez, definitzeko moduak eta diskurtsoak aldatu badira ere, nolabait, izaera patologikoa mantentzen dela, eta bertsua gertatzen dela kutsaduraren ideiarekin ere: ikuspegi hegemonikoan indartzen den zerbait da, publizitatean, kasu. Kutsaduraren haria, ordea, beste modu batean bada ere, zenbait elkarrizketatuen diskurtsoetan agertzen zaigu. Elkarrizketatu asko kritiko agertzen dira konpresa eta tanpoien industriarekin, eta euren ustez industria horrek sortzen du nolabait *zikin* sentiaraztea. Egin dudan landa lanean, era berean, hilekoa maiz azaltzen da garbiketa prozesu gisa, eta azalpen horrekin ez da emakume-gorputza-zikintasuna eskema horrekin guztiz hausten (Esteban, 2001).

Hilekoaren bestelako politikek -nahiz eta berauetan sortzen diren elementuak, praktikak zein narrazioak tentuz azertu behar diren- pitzadurak sortzen dituzte gorputzak ulertzeko eta arautzeko modu hegemonikoetan⁷. Pitzadura horien nolakotasunak ikertzea erronka antropologiko mamitsua da. Halaber, interesgarria da ezagutza alternatibo horien sortze-prozesuen nondik norakoak aztertzea; izan ere, ezagutza kolektiboak eraikitzeo parada eta abaguneak sortzen dira halakoetan. Ezagutzaren ekoizpen kolektiboen gainean, hilekoaren politikak gertatzen diren eremu desberdinetan hilekoaren eta gorputzaren gaineko lengoia

⁶ EHUko mugikortasuna beka eta berdintasunerako zuzendaritzak eskaintzen dituen laguntzen bitartez zenbait egonaldi egin ditut: UC Berkeleyko unibertsitatean (2012), UCSD San Diegoko unibertsitatean (2013), eta Ljubljana IRSa ikerketa zentroan (2014). Ljubljana egonaldi hartan, esaterako, Vstajniške Socialne Delavce taldea ezagutu nuen, zeintzuk hilekoaren iruditegiaren erabilera euren ekintzan feministen baitan barnerratu duten.

⁷ Ikus, Guilló Arakistain (2013, 2014a, 2014b, 2016).

propioa garatzen da. Ezagutza dinamikoak eta kooperatiboak izan ohi dira, eta nolabait, ezagutzak metatu, uztartu, garatu, sortu, hedatu... egiten dira, bide desberdinak harilkatuz.

Oro har, nire ustetan ezinbesteko afera antropologikoa da politika horietan sortzen diren disidentziak eta hausturak ikertzea, eta emakume gorputzez egiten diren zenbait irakurketa hegemonikorekin hausteko bideak analizatzea. Finean, genero eta gorputzen gaineko erregulazioak auzitan jartzeko moduak behatzea eta xehatzea litzateke funtsa, prozesu horietan sortzen diren korapiloak zein gakoak, bizipenen aniztasunari edota identitateen eraketari erreparatu⁸.

6. Erreferentziak

Aretxaga, B. (1997) «Protesta sucia: sobredeterminación simbólica y género en la violencia étnica de Irlanda del Norte» in *BiTARTE*, **13**, 45-68, Donostia

Aperribai, L. (2012): Hilekoaren aurreko nahastearen ebaluazioa: screening tresnaren eraikuntza. Doktore-tesia UPV/EHU.

Alonso-Arbiol, I., Balluerka, N. eta Aperribai, L. (2009): «Hilekoaren aurreko nahaste disforikoa: kontzeptua eta ebaluazioa» in Alonso-Arbiol, I. eta Gallarin, M. (arg.) *Generoa aztergai Psikologian: egungo ikerketak*. UEU, Bilbo.

Blázquez, M. (2005): «Aproximación a la antropología de la reproducción», *AIBR. Revista de Antropología Iberoamericana*, **42**, Antropólogos Iberoamericanos en Red, Madril.

Buckley, T. eta Gottlieb, A. (1988) *Blood magic. The Anthropology of menstruation*, University of California Press, Oakland.

Csordas, T. (1994) *Embodiment and experience: The existential ground of culture and self*. Cambrigde University Press, Cambrigde.

De Miguel, J. (1971): *El Mito de la inmaculada Concepción*, Anagrama, Bartzelona.

De La Peña, N. (2002): «La representación de lo femenino en la publicidad de compresas. Análisis comparado Evax/Ausonia 1997-1999», *Política y Sociedad*, Vol 39, **1**, 209-220, Madril.

Douglas, M. (2000): *Pureza y peligro: análisis de los conceptos de contaminación y tabú*, Siglo XXI, Buenos Aires.

Esteban, M.L. (2001): *Re-producción del cuerpo femenino, discursos y practicas acerca del a salud*, Gakoa, Donostia.

_____ (2004): *Antropología del cuerpo, genero, itinerarios corporales, identidad y cambio*, Bellaterra, Bartzelona.

Guillo Arakistain, M. (2013): «La incorporación de la investigación: políticas de la menstruación y cuerpos (re)productivos» en *La sensibilidad: potencia y resistencias*, Manuel Roberto Escobar y Nina Alejandra Cabra (eds.), *Revista Nómadas*, Universidad Central, **39**, 233-245, Bogota.

_____ (2014a): «Mujeres jóvenes y menstruación: contracultura y resignificación del ciclo menstrual en el País Vasco» en *Jóvenes, desigualdades y salud. Vulnerabilidad y políticas públicas*, Oriol Romaní y Lina Casado (eds.) *Publicacions URV Antropologia Mèdica*, **13**, 143-165, Tarragona.

_____ (2014b): «Menstruación y nuevas formas de espiritualidad: políticas, agencias y saberes alternativos» *Actas Simposio Reencuentro salud y espiritualidad: agencias, saberes y prácticas periféricas*, Periferias, fronteras y diálogos. XIII Congreso de Antropología de la FAAEE. Universitat Rovira y Virgili. 4577- 4594, Tarragona.

⁸ Artikulu honetan, doktore-tesian garrantzitsuak izaten ari diren zenbait ideia laburbildu ditut: hilekoaren ikuspegi biomedikoa, soziala eta hilekoaren politiken planteamendua. Doktore-tesian, honez gain, politika horiek eta oro har, hilekoaren kultura alternatiboa klabe sakonean behatu dut, horretarako prozesu etnografikoa eginez. Egun idazketa prozesuan aurkitzen naiz, beraz, uneko xedea, jasotako eta analizatutako datuak idatzi eta aurkeztea da.

_____ (2016): «Espiritualtasun garaikideak hilekoaren irakurketa alternatiboetan: gorputz-eta genero- ideologiak» in Esteban, ML. eta Hernández, J. (koord), *Etnografía feminista Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropología*, UEU, Bilbo.

Houppert, K. (2000): *La menstruación, desmontando el ultimo tabú femenino*, Juventud, Bartzelona.

Martin, E. (1987): *The Women in the Body: A Cultural Analysis of Reproduction*, Beacon Press, Boston.

Parera, N. eta Suris, J.C. (1994): «Edad de la menarquia y problemas menstruales en adolescentes de Barcelona», *Progresos de obstetricia y ginecología*, vol 7, 9, Bartzelona.

Parera, N., Penella, J. eta Carrera, J.M. (1997): «Menarquia, avance secular y datos antropométricos» *Progresos de obstetricia y ginecología*, vol 40, 1, Bartzelona.

Perdiguero, E. (2006): «Una reflexión sobre el pluralismo medico». En: Fernández Juárez, G. (coord.) *Salud e interculturalidad en América Latina. Antropología de la salud y crítica intercultural*. Ediciones Abya-Yala/Universidad, 33-49, Castilla La Mancha.

Ortiz, T. (2006): *Medicina, historia y género, 130 años de investigación feminista*, KRK, Oviedo.

Ortner, S (1979): «Es la mujer con respecto al hombre lo que la naturaleza con respecto a la cultura?» , *Antropología y Feminismo*, Anagrama, 109-131, Bartzelona.

Valls-Llobet, C. (2006): *Mujeres, salud y poder*, Cátedra, Madril.

7. Eskerrak eta oharrak

Hilekoaren esanguren eta hilekoaren politiken honako hurbilketa, Mari Luz Estebanen zuzendaritzapean garatzen ari naizen «Kontrakultura espazioak, genero-harremanak eta gorputza: Emakume gazteak eta hilekoaren politikak» doktore-tesiaren abiagunea da. Horretan jarduteko UPV/EHUren doktore-aurretiko ikerkuntza beka izan dut. Horrez gain, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzari esker zenbait kongresu espezializatuetan ikerketaren atal desberdinak aurkeztu ditut, eta UPV/EHUren mugikortasunerako diru-laguntzei esker hainbat ikerketa egonaldi egiteko aukera ere baliatu dut. Eskertu nahi ditut, hortaz, prozesu honetan modu desberdinetan lagundu nauten guztiak, eta bereziki, bidean gidatu nauen zuzendaria eta elkarriketetan zein bestelako moduetan ikerketan parte hartu duten pertsona guztiak.